

ENERGIA ETA ALDAKETA KLIMATIKOA DONOSTIAN

Europako testuingurua:

28ko EBn biztanle bakoitzaren barne kontsumo gordina 3,27 tpb izan zen (2013. urteko datuak). EAEn, berriz, 2,93 tpb, Europa hegoaldeko herrialdetakoa baino handiagoa, eta iparraldekoena baino txikiagoa. Biztanleko kontsumo handiena duten herrialdeak Luxenburgo, Finlandia, Suedia eta Belgika dira.

Balio absolututan, EAEn eskariak Espainiako Estatukoaren % 5,4 adierazten du, eta 28ko EBen % 0,4.

Euskadik duen kanpoko energiaren menpekotasuna % 93,5 da, EBko estatu kide guztiena baino handiagoa, Luxenburgo izan ezik.

Donostiaren kasuan, menpekotasuna are handiagoa da, bertako energia ekoizpena minimoa baita.

Kontsumo energetikoa EAEn eta Donostian:

2014. urtean energia kontsumoak aurreko urtetan izandako joera berari eutsi dio, behera eginez. Hala, industrian % 1,3 egin du behera, zerbitzuen alorrean % 2,5, etxebizitza sektorean % 5,6 eta lehen sektorean % 11,1. Berririo gora egin duen sektore bakarra garraioarena izan da; zehazki, % 1,4.

Elektrizitatearen eskaria, aurreko urtean izandakoarekin alderatuta, % 1 jaitsi da. Eskari horren % 39 bertako ekoizpenaren bidez ase zen, aurreko urtearen aldean ehuneko txikiagoa dena, baterako sorkuntza instalazioen funtzionamendu apalagoaren ondorioz. Gas naturalaren erabilerak % 9,2 egin zuen behera. EAEn energia berriztagarrien ustiapena % 3,1 igo zen, aurreko urtean izandakoarekin alderatuta; energia horren % 67,8 biomasari dagokio, % 15 bioerregaiei, % 8,6 energia hidroelektrikoari, % 6,9 energia eolikoari eta % 1,8 eguzki energiari.

Automozio gasolioaren kontsumoa, EAEn kontsumitu zen petroliotik eratorri guztien % 74 izan zen. Horren ondoren, gasolinarena (% 8,7) eta B eta C gasolioena (% 6,6) erori ziren. 2014an aldaketa handiena fuel olioaren jaitsiera izan zen (% 22). Petroliotik eratorrien eskaria garraio sektoreari zegokion gehienbat (guztizkoaren % 86,3); industriarena, berriz, % 7 izan zen.

EAEn, energia elektrikoaren eskaria 16.335 GWh izan zen 2014. urtean; aurreko urtekoarekin alderatuta, % 0,9 egin zuen behera. Azken energia kontsumoaren % 25,7 energia elektrikoari dagokio. EAEn, elektrizitatearen ekoizpena % 12,1 jaitsi zen 2014an, zentral terminoen eta baterako sorkuntzaren ekoizpen txikiagoagatik, eta eskariaren % 39a bete zuen. Gainerako % 61a elektrizitatearen inportazioei dagokie.


Etxebizitza sektorean energia kontsumoa 550 ktpb izan zen 2014. urtean, aurreko urtekoarekin alderatuta, % 5,6 jaitsi zen, eta azken kontsumoaren % 11 izan zen.

Gas naturalaren eta elektrizitatearen kontsumoak EAEn % 3,6 egin zuen behera.

EAEn, 2014an biztanleko energia kontsumoa % 2,9 jaitsi zen eta etxearena % 5,9.


Energiaren Euskal Erakundeak 2008-2020 eperako espero ziren kontsumo kopuruak birplanteatu behar izan ditu, kontsumoaren igoera egonkorra espero zenean, ez baita eman. Kontsumoak behera egin du 2008tik hona, munduko krisialdi ekonomikoaren ondorioz.

Energia elektrikoaren kontsumoa Donostian:



Donostian antzeko zerbait gertatu da. Energia kontsumoan bi gorakada eman ziren 2010 eta 2012. urteetan erregaien kontsumoa handitu zelako, baina joera behera egitekoa da, 2015 arte.

2015. urtean, berriz, Donostian kontsumo elektrikoaren gorakada ematen da. Hori dela eta, pentsa daiteke goranzko joera datorrela. Kontsumoaren gorakada sektore guztietan ematen da. Zaila da zehazten, 2015. urtera arte emandako beherakada zenbateraino den energia eraginkortasunaren hobekuntzaren ondorio.




Etxebizitza sektorearen kasuan, Donostian kontsumitutako energia % 0,67 jaitsi zela kalkulatzen da, eraikin profilarren hobekuntzari esker. Energia aurrezteko potentzila sektore honetan % 17,61 da.

Donostiako etxebizitza guztietan kontzeptu honetan saihestutako emisioak produzitutakoen % 1,01 dira, eta % 0,13 hiriaren guztizko CO2 emisioekiko.

Energia aurrezteko potentzial hau eraikinen eskari termikoaren beherakadan oinarritzen da. Kontsumo mota hau, batez ere, gas kontsumoari lotzen zaio. Grafikoan ikus daiteke, zerra hortzak dauden arren, kontsumo handiagorako joera dagoela. Bat-bateko igoera eta jaitsierak, urtez urteko baldintza klimatikoek dagokie. Neguak gogorragoak edo arinagoak izan daitezke.

Gasaren kontsumoa Donostian



Energia berriztagarria:

EAEen energia berriztagarriaren ustiapena 433 ktpb izan zen 2014. urtean. Kopuru horretatik, % 67,8 biomasari dagokio, % 15 bioerregaiei, % 8,6 energia hidroelektrikoari, eta % 6,9 energia eolikoari.

Azken energia kontsumoan, berriztagarrien kuota % 7 da.

Sorkuntza elektriko berriztagarria % 15,4 jaitsi zen 2014an, eta 1.068 GWh izan zen. Elektrizitatearen guztizko eskarian % 6,5eko partaidetza izan zuen.

Donostiari dagokionez, energia berriztagarriaren ekoizpenak kontsumoaren % 0,85 jotzen du. Hori horrela, % 20ko ekoizpen helburu batek bakarrik, egungo instalazioen gaitasuna gutxi gorabehera 25 aldiz biderkatzea joko luke. Horren inguruko araudia kontuan hartuz, helburuen lorpenerako dugun panorama ilun samarra dela ondorioztatu daiteke.


Gainera, udal mugartean mota horretako energiak instalatzeko dagoen gaitasun potentziala gehitu behar litzateke. Egin diren pilotuetan, minieolikoa ez da batere eraginkorra frogatu. Haizearen abiadurak, eta teknologiaren artearen egoerak, gaur egun ez dute askorako ematen. Zerbait ekoiztu lezakeen gune bakarra Igeldo da. Bestalde, eraikinetan ezarritako minisorgailuen bidez energia hau integratzearen ideiak ez du oso egingarria ematen.

Biomasari dagokionez, ingurumenaren ikuspegitik gero eta gehiago zalantzan jartzen den aukera da. Partikulen emisio altuak, jatorrian duen kudeaketa, erabilitako erregaiek, behar duen garraioa, eta bestelako arazoak medio. Instalazio mota hau bai dela interesgarria erregaia bertako jatorrikoa denean; parke eta lorategien inausketatik datorrenean. Bestelako kasutan, arretaz aztertu beharreko kontua da, ingurumenean dituen ondorioak direla eta.

Ondorioak:

Hiria energiaren estolda zuloa da. Kontsumo eta BEG isurpen altuenak garraioan ematen dira. Udalak ekoizten duen energia oso gutxi da eta jatorri berriztagarriko potentzia gehiago instalatzeko aukerak oso txikiak. Teknologia hauekiko batzuk eraikin berritan ezartzea posible da, baina oso zaila da lehendik eraikitakoan instalatzea. Lurzoru gehiago okupatzea ezinezkoa denez, eta eraikitakoa birgaituz hiria barrurantz garatu behar litzatekeenez, murrizketa helburuak lortzeko aukera oso murrizta da, egoera ekonomiko txar baten ondorioz kontsumo patrioiak aldatzen ez badira.

Reducción de las emisiones de GEI de Donostia




Informazio iturria: geuk egina. Ingurumen Saila

Eman diren murrizketak testuinguru ekonomiko zehatz bati dagozkio gehienbat, eta ez dira izan sistema aktibo eta pasiboen efizientzia energetikoari esker gertatutako kontsumo jaitsieraren ondorio.

Industriak efizientzia energetikoa lortzeko esfortzu nabarmena egin du, baina geratzen den hobekuntza marjina txikia da. Garraioak, berriz, marjina dezente du. Teknologia berriei esker, bide publikoaren argiztapenak energia asko aurreztuz joan da, eta oraindik ere instalazio batzuk berritzeke daude. Argiztapenari dagozkion emaitzak ikusgarriak izan ohi dira; % 50 inguru aurrez daiteke.


Eraikuntzetan, bestetik, batez ere birgaitzetan, aurreztutakoa asko izan daiteke, kontuan izanda hirietan kontsumitzen denaren % 40 eraikinek kontsumitzen dutela.

Emisiones de GEI del municipio




Informazio iturria: geuk egina. Ingurumen Saila

Emisiones de GEI del municipio



Informazio iturria: geuk egina. Ingurumen Saila

Emisiones de GEI del municipio (sin industria)



Informazio iturria: geuk egina. Ingurumen Saila